

OSOQUNEKO ERAKASKERA

1993 - 94

① ELHEKETA : ASTE HUNTAKO SOLAS BIDGA.

1. Piarres nola ko gizona zen, izatez, gogoz
2. Zer zen bere harria.
3. Zeren arrazuna du.

PIARRESEN GALTZAK



Gizon gaitza zen egiazki gure Piarres: bi metra gora edo hurbil. Elizan sartzen zelarik, belhar zama bizkarrean ukan balu bezala, bi plegu egin behar zen, bere onetan. Bertzela, kask, uspel bat ederra biltzen zuen kopetan, Moysse profetaren adairen iduriko uspel bat.

Garzean, Tambour-Major egiten zuten Phesta-Berri guzietz, eta Garazi gütitik bazoazin jendeak haren ikustera. Kaska eder bat buruan, —oraino handiago izaiteko— mirail<sup>1</sup> pullit bat kaskaren erdian, makil bat xoragarria eskuetan firurikatzen zuela, azpitik eta gaineraino dena urhe, zilar eta xingola, ikustekoa zen orduan Piarres.

Bainan Otxalde eta Etxahunen kantuan errana den bezala: Bethi gazi<sup>2</sup> ezin egon, hasi zen zahartzen, eta, zahartu eta, bardin bertze deusetako ez zela on, eta bethi igual handi eta gora gelditu zelakotz ere, herriko auzaphez, herriko mera egin zuten, han nonbait<sup>1</sup> Garazin.

Erran beharra ahantzi dut, pastiza<sup>1</sup> bezen oneko gizona zela Piarres. Sekulan ez zen hasarretzen, ez eta bere andrearekin ere.

Hor, biharamunean Behorlegiko eztei batzuctara behar zelakotz, Ixabel, herriko dendari aiphatuenak ekartzen dio, prest-presta, erdian pleguño batekin, galtza edo pantalon pare bat, pullita, bainan pullita! Halakorik ez zela oraino han gaindi ikusi, hori gauza segura.

Tambur-maïor zen denbora famatu hetako arguilutik pitta bat bethi gelditua ere baitzitzaion, Piarresek hartzen ditu ltzak, pulliki, pulliki, eta pullikiago oraino eremaiten, eskai-handieri gora, ganbararaino.

Horra orai galtzak ohearen gainean. Bexino! zer galtzak! Nork egundaino izan du holako galtzarik? Zer plegu xuxena, zer puntuak, zer sakelak, zer botoinak! Eta forradura! Jaun erretor zaharrak lephoan erabiltzen zuen fularño hura ez zen, segur gero, forradura hori bezen goxoa eta ezta. Behorlegin aiphatuko ditie, hatik, galtza hauk, Piarres!... Eta Piarresek, arrats guzietz ur beroan sartzean bezen pulliki, eztiki, eztiki, bere zango luze luzeak sartzen ditu galtzetan! Hauts balite orai! Berroia!...

"Jesus, Jainko maitea! Zer da hau!... Oh!... Bada posible?... Hean, gerruntzean altxatuz?... Oh!... Zangoak ez aski luze? Ixabelek galtzak luzeago egin dazkitala? Norendako eginak zituen beraz?... Bi mila sorgin! Oh, oh, Ixabel!"

Eta, dena izerditua, ikare hotz batek hartua, bere galtza madarikatu luzean barnean, salto-motxka ari zen Piarres. Bainan debaldetan. Bethi eta luzeago egiten ari zirela iduri ere zuten galtza pozoindatuek. Oh! Ixabel! Ixabel!...

II. ADITZE IKASKUNTZA.

31. ukan balu 32. bazoazin  
33. aiphatuko ditie 34. hauts balite  
31. UKAN - Suppositif - éventuel.

<u>O. S.</u>		<u>O. P.</u>	
Nik banu	(si je l'avais)	banitu	(si je les avais)
Hik bahu	}	bahitu	}
Zek bazinu		bazinitu	
Harek balu		balitu	
Guk bazinu		bazinitu	
Zuek bazinitu		bazinituzte	
Heiek balute	etc.	balituzte	etc.

32. JOAN - Aller - Indicatif

<u>Present</u>		<u>Imparfait</u>	
Ni noa	(je vais)	nindoan	(j'allais)
Hi noa		nindoan	
Zu zoatze		zinoatzen	
Hura doa		zoan	
Guk goatzi		ginoatzen	
Zuek zoazte		zinoazten	
Heiek doatze		zoatzen	

33. UKAN. tutoiement - Indicatif présent

<u>O. S.</u>		<u>O. P.</u>	
Nik diat (diat)	(je t'ai)	ditiat (ditiat)	
Hik duk (duk)	(tu l'as)	dituk (dituk)	
Harek duk (duk)		dituk (dituk)	
Guk diegu (diegu)		ditiegu (ditiegu)	
Zuek diegu		ditiegu	
Heiek die	etc.	ditie (ditie)	

OSOGUNEKO ERAKASKERA

1993 - 94

① ELHEKETA : ASTE HUNTAKO SOLAS BIDEA.

1. Piarres nolako gizona zen, izatez, gogoz
2. Zer zen bere harina.
3. Zeren arrazuna du.

PIARRESEN GALTZAK



Gizon gaitza zen egiazki gure Piarres: bi metra gora edo hurbil. Elizan sartzen zelarik, belhar zama bizkarrean ukan balu bezala, bi plegu egin behar zen, bere onetan. Bertzela, kask, uspel bat ederra biltzen zuen kopetan, Moysse profetaren adarren iduriko uspel bat.

Garzean, *Tambour-Major* egiten zuen Phesta-Berri guziez, eta Garazi gúzitik bazoazin jendeak haren ikustera. Kaska eder bat buruan, —oraino handiago izaiteko— mirail' pullit bat kaskaren erdian, makil bat xoragarria eskuetan firurikatzen zuela, azpitik eta gaineraino dena urbe, zilar eta xingola, ikustekoa zen orduan Piarres.

Bainan Otxalde eta Etxehunen kantuan errana den bezala: *Bethi gazi'ezin egon, hasi zen zahartzen*, eta, zahartu eta, bardin bertze deusetako ez zela on, eta bethi igual handi eta gora gelditu zelakotz ere, herriko auzaphez, herriko *mera* egin zuten, han nonbait' Garazin.

Erran beharra ahantzi dut, pastiza<sup>a</sup> bezen oneko gizona zela Piarres. Sekulan ez zen hasarretzen, ez eta bere andrearekin ere.

Hor, biharamunean Behorlegiko eztei batzuetara behar zelakotz, Ixabel, herriko dendari aiphatuenak ekartzen dio, prest-presta, erdian pleguño batekin, galtza edo pantalon pare bat, pullita, bainan pullita! Halakorik ez zela oraino han gairi ikusi, hori gauza segura.

Tambur-maior zen denbora famatu hetako arguilutik pitta bat bethi gelditua ere baitzitzaion, Piarresek hartzen ditu ltzak, pulliki, pulliki, eta pullikiago oraino eremaiten, eskai-handieri gora, ganbararaino.

Horra orai galtzak ohearen gainean. Bexino! zer galtzak! Nork egundaino izan du holako galtzarik? Zer plegu xuxena, zer puntuak, zer sakelak, zer botoinak! Eta forradura! Jaun erretor zaharrak lephoan erabiltzen zuen fularño hura ez zen, segur gero, forradura hori bezen goxoa eta ezta. Behorlegin aiphatuko ditie, hatik, galtza hauk, Piarres!... Eta Piarresek, arrats guziez ur beoan sartzean bezen pulliki, eztiki, eztiki, bere zango luze luzeak sartzen ditu galtzetan! Hauts balite orai! Berroia!...

"Jesus, Jainko maitea! Zer da hau!... Oh!... Bada posible?... Hean, gerruntzean altxatuz?... Oh!... Zangoak ez aski luze? Ixabelek galtzak luzeago egin dazkitala? Norendako eginak zituen beraz?... Bi mila sorgin! Oh, oh, Ixabel!"

Eta, dena izerditua, ikare hotz batek hartua, bere galtza madarikatu luzean barnean, salto-motxka ari zen Piarres. Bain debaldetan. Bethi eta luzeago egiten ari zirela iduri ere zuten galtza pozoindatuek. Oh! Ixabel! Ixabel!...

II. ADITZE IKASKUNTZA.

31. ukan balu 32. bazoazin  
33. aiphatuko ditie 34. hauts balite  
31. UKAN - Suppositif - éventuel.

<u>O. S.</u>		<u>O. P.</u>
Nik bane	(si je l'avais)	banitu (si je les avais)
Hik bahu	}	bahitu
Zuk bazinu		bazinitu
Harek balu		balitu
Guk baginu		baginitu
Zuek bazinitu		bazinituzte
Heiek balute etc.		balituzte etc.

32. JOAN - Aller - Indicatif

<u>Present</u>	<u>Imparfait</u>
Ni moa (je vais)	nindoan (j'allais)
Hi hoo	hindoan
Zu zoatzi	zinoatzen
Hura doa	zoan
Gru goatzi	ginoatzen
Zuek zoazte	zinoazten
Heiek doatzi	zoatzen

33. UKAN. tirovement - Indicatif present

<u>O. S.</u>	<u>O. P.</u>
Nik diat (diat) / je l'ai	ditiat (ditiat)
Hik duk (duk) / tu l'as	dituk (dituk)
Harek duk (duk)	dituk (dituk)
Guk diatze (diatze)	ditiatze (ditiatze)
Zuek duzue	dituzue
Heiek die etc.	ditie (ditie)